

*** 12. AKTA***

EZOHIKO BILKURA

ORTZEGUNEan, 2025ko AGORRILAREN 14ean

<u>ALKATE-UDALBURUA:</u> JONE ALASTUEY GARCÍA <u>ZINEGOTZIAK:</u> Mª LUISA BERNAT MARCO BELEN MARKO INDURAIN NATIVIDAD ESTEFANÍA LABAIRU MARCO <u>IDAZKARIA:</u> Mª JESÚS SANZ PUEYO	Uztarrozeko udaletxeko bilkura-aretoan, 2025ko agorrilaren 14ean, ortzegunean, 10:00etan, bildu dira alboan aipatzen diren zinegotziak, Uztarrozeko udalaren ezohiko osoko bilkura egiteko, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko garilaren 2ko 6/1990 Foru Legeari ezarritakoaren arabera. Ekitaldia Uztarrozeko udaleko alkatea Jone Alastuey Garcia eta udaleko idazkaria Mª Jesús Sanz Pueyoren presentzietan egiten da.
---	--

ANDER MONTILLA ADOT zinegotzia ez dator lana dela eta.

Alkate-udalburuak hala aginduta, saioari hasiera eman zaio, eta ondoren
aipatzen diren gaiak aztertu dira.

:

GAI-ZERRENDAA

1. BEHIN BETIKO ESLEIPENA: "UZTARROZE IBAIKO IGERILEKURAKO
ZERBITZUAK EMATEKO LEKUA EGOKITZEA"

**1.)- BEHIN BETIKO ESLEIPENA: "UZTARROZE IBAIKO IGERILEKURAKO
ZERBITZUAK EMATEKO LEKUA EGOKITZEA"**

Alkateak azaldu duenez, "UZTARROZEKO IBAI-IGERILEKUA ZERBITZUZ
HORNITZEKO ESPAZIOA EGOKITZEA" obraren lizitazioaren esleipenari buruzko Kontratazio
Mahaiaren proposamena jaso ondoren, irakurri egin du eta adierazi du saio honetan behin betiko
esleitu zaiola obra puntuaziorik handiena lortu duen enpresa lizitatzailerari, Nafarroako
Gobernuaren Kontratazio Atarian argitaratutako baldintza ekonomiko-administratiboen agiriarekin
bat etorritik.

Fco Javier Chocarro San Martin.arkitektoak 2025eko apirilaren 1ean
UZTARROZEKO IBAI-IGERILEKUA ZERBITZUZ HORNITZEKO ESPAZIOA EGOKITZEKO
proiektua egin zuen..

"EXCAVACIONES JESÚS M^a SALVADOR IMIZCOZ" (IFZ: 15.783.375-Q) enpresa lizitatzailerak 94 puntu lortu ditu baremazioan, eta parte-hartzaileen artean puntuaziorik altuena lortu du.

Aurkeztutako dokumentazioarekin, gaitasuna eta kaudimena – Gaitasun Teknikoa eta Profesionala eta Ekonomia- eta Finantza-kaudimena – egiaztatu dira, enpresa esleipendunak hala egiaztatu baitu.

Baldintza Administrazioaren Pleguko 15. klausula betez, Kontratazio Mahaiak esleipen-proposamena egin du.

Kontratazio Mahaiak behin-behineko esleipen-proposamena egin zion organo eskudunari (alkatea), eta bidezkoa da kontratua **"EXCAVACIONES JESÚS M^a SALVADOR IMIZCOZ"** merkataritza-sozietateari (IFZ: 15.783.375-Q) **BEHIN BETIKO esleitzea**. Izan ere, puntuaziorik altuena (**94 puntu**) lortu du, lehentasun-ordena honen arabera eta puntuazio hauekin, argitaratutako pleguaren esleipen-irizpideak aplikatuta (12. klausula). Nafarroako lizitazio elektronikorako plataforma (3173_3/2025 espediente)

Idazkariak jakinarazi du Kontratazio Mahaiak aurkeztutako dokumentazioa egiaztatu duela, eta esleipen-proposamena egin diola kontratazio-organismoari, proposamen onargarria egin duten pertsonen lehentasun-ordenaren arabera, esleipen-irizpideak aplikatuta lortutako puntuazioekin.

Era berean, jakinarazi du kontratu publikoak kontratazio-organismo eskudunak egindako esleipenaren bidez burutzen direla, erabilitako esleipen-prozedura edozein dela ere – Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko Foru Legearen 101.1 artikulua –, eta esleipen-egintzaren eraginkortasuna etenda geratuko dela 10 egun naturaleko epean, esleipenaren jakinarazpena bidaltzen den egunetik zenbatzen hasita – 101.2 Lege bera.

Kontratua gehienez ere 15 egun naturaleko epean formalizatuko da, esleipena eteteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita.

Gaia aztertu eta bozkatu ondoren, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko garilaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 267. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat etorritik, udalbatzak honako hau **ERABAKI DU** aho batez (4 boto):

LEINA.- Honako obra UZTARROZEKO IBAI-IGERILEKUA ZERBITZUZ HORNITZEKO ESPAZIOA EGOKITZEA honen behin betiko esleipena ONARTZEA "EXCAVACIONES JESÚS M^a SALVADOR IMIZCOZ" enpresari (IFZ: 15.783.375-Q; helbidea: El Rincón kalea 2, PK: 31412, Burgi (Nafarroa)).
48.389,10 € gehi BEZa.

BIGARNENA.–Kontratua eteteko 10 egun naturaleko epea igarotakoan, esleipendunari ESKATUKO zaio, kontratua formalizatu aurretik, Aseguru Poliza eta obraren prozesutik eratorritako arriskuak estaltzen dituen aseguruaren prima ordaindu izana egiaztatzen duen dokumentazioa aurkez ditzala, betiere gutxieneko kalte-ordainaren muga lizitazio-aurrekontuaren berdina izanik. Era berean, UZTARROZEko Udalari esleipenaren zenbatekoaren (BEZik gabe) % 4ko behin betiko bermea jarri izanaren egiaztatzea aurkeztu beharko du. Berme hori EFPLren 70.3 artikuluan aurreikusitako edozein modutan eratu ahal izango da,

eta baldintza-agiriaren 18. paragrafoan aipatutako gainerako administrazio-agiriak ere bai.

HIRORGARNENA.-Etenaldiaren ondoren, "EXCAVACIONES JESÚS M^a SALVADOR IMIZCOZ" enpresaren alde "UZTARROZEKO IBAI-IGERILEKUA ZERBITZUZ HORNITZEKO ESPAZIOA EGOKITZEKO" obra-kontratua SINATUKO da, aldeek egoki irizten diotenean.

LAURGARNENA.-Esleipen hau JAKINARAZTEA lizitazioan parte hartzen dutenei, eta ARGITARATZEA Nafarroako Kontratazio Atarian, EFPLren 102. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, alkate-udalburuak, 11:00etan, akta kau egin duen bilkura amaitutzat eman du, eta nik, idazkari naizen aldetik, ziurtatu egin dut.

Uztarrozen, 2025ko agorrilaren 14an.

O.E.
ALKATE-UDALBURUA

Jone Alastuey García.

O.E.
IDAZKARIA/KONTU-HARTZAILEA

M^a Jesús Sanz Pueyo.